

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Jendaurrean jartzea zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketa

Udal honek, 2019ko azaroaren 7an udalbatzak egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari (1. epigrafea – kiroldegia-, 2. epigrafea –udal igerilekuak-, 3. epigrafea –kirol zerbitzuak-, eta 11. epigrafea –futbol zelaia-).

Esandako espedientea jendaurrean egongo da hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa duen edozeinek epe horretan hura aztertu eta, hala badagokio, egoki irizitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzan.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onetsitako erabakia behin betiko onetsizat joko da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2019ko azaroaren 7a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ